



ZALDIBIAKO  
UDALA  
zaldibia.eus



## TRAFIKO OHARRA: IBILGAILUENTZAKO BIDE MOZKETA 2021/06/19

2021eko ekainaren 19a larunbata, ZALDIBIAKO MENDI LASTERKETA kirol froga ospatuko da Zaldibian. Hau dela eta ibilgailuen joan etorrian eragingo duten hainbat neurri hartuko direla jakinarazten dugu.

**ESKOLAKO APARKALEKUA:** Goizeko 8:00etatik 15:00etara

- Eskola eremua itxi egingo da. Lasterketako parte hartzaile eta antolatzaileek soilik sartu ahal izango dute. Eremu honetara, plaza atzeko pasabidetik sartuko dira parte hartzaileak.
- Egun eta ordu tarte horretan ezingo da ibilgailuz bertara sartu. Ibilgailuak bertatik atera ahal izateko antolakuntzako arduradunen baimena beharko da.

**SANTA FE kalea, ARTXANBERRI kalea ETA ARRUEGI auzoko hasiera:** 8:45tatik 9:30tara

- Lasterketa eskola eremutik aterako da. Marihaundiñeko bidegurutzetik, Artxanberri kalean zehar, Zubi Ondoraino eta handik hilerrietik Ibargun baserrira.
- 8:45tatik 9:30tara ibilgailuen joan etorria eten egingo da, lasterketa igaro arte.

**EGILEGOR AUZOA (ZULOTA-TXAMARRETXE) eta SANTA FE kalea:** 9:00etatik 15:00etara

- Lasterketako azken zatia Zulota gaiñetik Txamarretxera bidez burutuko da. Ibilgailuen joan etorria bertako bizilagunetara mugatuko da lasterketa behar adinako segurtasunez burutu ahal izateko. Irizpide zehatzak helaraziko dizkie antolakuntzak bizilagunei.
- Txamarretxe eta Arrese aurretik igaroko da lasterketa eskola eremura. Eremu honetan Ibilgailuen joan etorria mugatuko da eta jende pilaketak ekiditeko neurriak hartuko ditu antolakuntzak.

**GARRAIO PUBLIKOA:** 8:00tatik 10:00tara, autobusak Arreseneko geltokira iritsi eta bertatik aterako dira.



ZALDIBIAKO  
UDALA

Zaldibian, 2021eko ekainaren 8an.

Sinatzailea	BEHIN BEHINEKO ALKATEA MIKEL LULOAGA ARANBURU		
Kodea	BN21/0001	Udala	ZALDIBIA
URL	<a href="https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/78/AAAA1A7C3.zHlt">https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/78/AAAA1A7C3.zHlt</a>		
Dokumentu hau elektronikoki sinatuta dago. Honen baliotasuna egiaztatzeko hurrengo Web-an sarbideratu zaitez edo QR irudia irakurri ezazu			

